



Patxi Zubizarreta - Elena Odriozola

3. Telefono deiak



—**JOANA, ZU AL ZARA?**— galdegin zuen telefonoaren bestaldeko ahotsak.

—Amaaa!!!—deitu zion Bixintxok amari, eta hura jarri zelarik—: Bai, esan?

—Joana, Kati naiz, Iratiren ama. Hor al dago nire alaba?

—Bai, hemen da—erantzun zion Joanak, eta Katiren lasaitasun hasperena entzuten zuela, honela jarraitu zuen—: Atzo gauean deitu zigun.

Antza, zuei itxaroten egon zen, euripean, bi ordu luzez; baina, azkenean, inor agertzen ez zela ikustean, Usoari deitu zion.

—Eskerrak!—atera zitzaion Katiri—. Mila esker, Joana. Oraintxe noa zuengana, oraintxe argituko dizut dena.

Kati handik gutxira agertu zen, Usoa, Bixintxo eta Irati gosaltzen ari zirela. Alaba puska batean besarkatu eta musukatu ostean, bi neba-arrebak agurtu, eta Joanarekin egongelara joan zen.

—Jakingo duzunez, oso denboraldi txarra pasatzen ari gara etxean. Bikotean ez gaude batere ongi eta, hori gutxi balitz... —Katik zalantza egin zuen, jarraitu, ez jarraitu—. Hori gutxi balitz, Alexek lana galdu du. Nik ezer ez banekien ere, kamioia martxoan saldu zuen... —Katik ezin izan zuen jarraitu eta Joanak besoa pausatu zion sorbalda gainean.

—Lasai zaitez, Kati. Irati daukazu, eta berak emango dizu aurrera egiteko adorea—adierazi zion Joanak—, eta Iratiri Usoak.

—Baina ezin dugu honela jarraitu... Atzo abokatuarenera joan ginen eta bitartean Irati aitonaarekin utzi genuen, egoitzan. Nik lanera joan behar izan nuen eta Alex geratu zen Irati jasotzekotan, baina ikusten duzunez...

—Gu ere hemen gauzakazu, edozertarako behar—segitu zuen Joanak, baina ezin izan zuen amaitu, izan ere orduantxe jo baitzuen telefonoak, izan ere Bixintxo tximistotsean agertu baitzen hura hartzeko.

—Usoaaa!!!—deitu zion Bixintxok arrebari, eta Usoa lotsagorritu egin zen aparailua belarrira eraman zuenean, eta «Bai» baino ez zuen esan, lauzpabost bider esan ere—. Bai, agur.

—Manex zen, kanpamenduan egin genuen laguna—esan zien Usoak Joana eta Katiri—. Manex zen, eta arratsalderako geratu gara: antza, dagoeneko badaki zenbat ematen dioten lapurren altxorraren truke—esan zion Usoak Iratiri, eta irribarretsuago—: Guk uste baino gehiago omen da...

Irati berandu gabe joan zen amarekin, eta Usoa ere amarekin eta Bixintxorekin irten zen laster batean, eskolarako liburuak eta gainerakoak erostera. Eta Usoa ohi baino urduriago ibili zen, eta hala oroitarazi zioten amak eta nebak: luma urdina erosi zuen, eta beti berdea aukeratu izan zuen; gizarteko liburua hartzea aherentzi zitzaion, eta horixe zen gehien atsegin zuen ikasgaia. Eta beharbada horrexegatik, komunean kukutu zen etxera itzuli bezain laster, eta kanpamendua izan zuen gogoan, eta Manexek hartan luzatu zion gutuna berrirakurri zuen. Eta ordua aurrerago eta Usoa urduriago zegoen.

—Usoa, zabalduuu!!! Txizalarri naiz!!!—esnarazi zuen Bixintxok.

Baina azkenean iritsi zen hitzordua eta Usoa izan zen hiriguneko parkeko kafetegira agertzen lehena. Alabaina, oraingoan ere kukutu egin zen, kafetegiko komunean ez, baina estatua baten atzealdean. Eta handixe Manex etortzen ikusi zuen, eta hurrena Irati, eta orduan, eta soil-soilik orduan irten zen bere ezkutalekutik: inondik ere ez zuen Manexekin buruz buru geratu nahi.

Manex parkean agertu zenean, bihotza azkartu egin zitzaion Usoari. Ez zen betiko gabardinarekin etorri (bai, oster, betiko bizkar zorroarekin) eta, egia esatera, argalago ematen zuen (bere Erregimen Psikologiko Pausatuak berarengan eraginik izan balu bezala). Eta kafetegian sartu zenean, bihotza are gehiago azkartu zitzaion Usoari, batez ere Iratiri eta Manexi bina musu eman zienean.

—Ze adeitsu zauden, neska. Badirudi aspaldian ez dugula elkar ikusi, eta gaur goizean egon gara—esan zuen Iratik Manexi begira, eta berehala, hitz beste eginez—: Eta, orain, hirurok gaudela, zenbat ematen *digute* kutxagatik?

Manexek paperezko serbiletan bat hartu zuen eta, bizkar zorrotik luma psikodeliko bat aterata, hainbat zero marraztu zituen bat zenbakiaren ondotik: 10.000.

—Euro, noski—argitu zien—. Bitxiak oso ederrak dira, baina nahikoa higaturik omen daude. Billeteengatik, berriz, ezer gutxi ematen *digute*—amaitu zuen Iratiri begira.

Iratik zakar kendu zion serbiletan Manexi. Luma ere kendu zion eta kopuru hura zati hiru egin zuen: 3.333 euro.

—Eskuzabalak garela ikus dezazun, zuretzat 3.334 euro—amaitu zuen Manexi maliziotsu begira—. Milioi erditik gora pezeta. Ez dago gaizki—Eta isilune baten ondotik, bi lagunak espero zutenean Iratik munduaren itzuliarena aipatuko zuela—: Nik lehenbailehen nahi dut diru hori. Bihar bertan.

Baina lagunak ezin izan zuten ezer gaineratu, zeren Irati, freskagarriari azken hurrupada eginik, mahaitik altxatu baitzen.

—Usoa, nirekin zatoz edo Manexekin geratzen zara? *Tanatoriora* joan beharra daukat (GHP: berez, hildakoak lurperatu aurretik egoten diren tokia, baina Iratik horrela deitzen zion bera aitona zegoen zaharren egoitzari).

Usoak ez zuen zalantza izpirik izan eta bera ere altxatu egin zen.

—Egongo gara...—xuxurlatu zion Manexi.

—Ez dakit diru hori biharko lortzerik izango dudan—adierazi zien Manexek.

—Orduan ez deitu lortzen duzun arte—eten zuen Iratik, eta aterantza abiatu zen. Usoak sorbaldak goratu zituen eta azken begiratu luzatu zion Manexi, baina ezer esan gabe joan zen lagunaren atzetik.

Bi lagunak zaharren egoitzara joan ziren Iratiren aitona bisitatzer, baina Usoari iruditzen zitzaion

Irati han ere arraro zebilela, ez zela betiko Irati, alegia. Alabaina, Usoa ere arraro sentitzen zen, zeren goizeko urduritasunari oraingo nahasmendua gehitzen baitzitzaion, altxorren kontua pozik egoteko nahikoa ez balitz bezala.

Etxera itzuli zenean ere, Usoa urduri eta nahasi egon zen, eta are gehiago urduritu eta nahasi zen gauean telefonoak jo, eta Bixintxok hots egin zuenean:

—Usoaaa!!!

